


BARTZELONA MODERNISTA

Bartzelonak, Borbondar Felipe Varen zigorrez, gau ilun eta antzu bat jasan zuen mende eta erdian, bere ekimen kultural, industrial, politiko guztiak errotik suntsituta ikusten zituclarik. Baina harresiak eraitsirik, 1892an Konstituzio Katalanaren oinarriak jarri zirenean, hiriaren zabalketa eta modernizazioa etorri ziren eta berarekin industria, merkataritza eta ekonomiaren lorraldia. Baita kultura eta arteen berpizkundea ere. Eugenio D'Orsek zioenez: "Eta guk, katalanok, humanismoaren geure zatiari etsipen koldarrez uko egin behar al diogu? Agudo-agudo, betoz museoak, betoz akademiak, betoz erakusketak, betor heziketa, betor kultura, betor bizitza zibila, betor urbanizazioa, betor denon gogoia, denon kemena, denon indarra, gaur... katalanak handinahi saildu batean humanismorako bidean helmugak jarri bai-titugu".


Aspektu askotan bete ziren noski ideal hauek. Eta mugimendu modernista izango da lehenbiziko agerpena.

Ikus ditzagun, bada, Bartzelonak, hirigintza eta arkitektura modernista arloan dagoen eredurik garrantzitsuenetako hiri honek, eskaintzen dizkigun adibide batzuk.


Juan Mari Arrizabalaga




01.- Casa Batlló. Gaudí.- Eskuz modelatutako eskultura baten antz gehiago du Batlló etxeak, arkitekturaren gainetik indar jario bigun bat baitabil bere arku parabolikoetan zehar.




02.- Casa Sayrach. Gaudí.- Harrizko eraikina bigundu digu Manuel Sayrachek. Urtzen ari den arren, barneko forma sendoak eta indartsuak gordetzen ditu bere baitan.




03.- Jainkoaren tenplu bat dirudien arren, beste jainko baten tenplua dugu: diruarena. Aberastasuna, handinahia eta arte ederrak erlijio bihurtu ziren garaian jasotako eraikina finantza etxe batentzat.




04.- Loreak egun bakar baten zabaldu ziran eta harri bihurtuta diraute.




05.- Graziako pasealekua, Bartzelonako dotoreziaren mui-
na, eta inguruko kaleak biltzen dituzte Bartzelona modernista-
ren eraikinik ederrenak




06.- Gotikoari bere nortasuna kendu diote eta apaingarri huts bihurtu.




07.- Bartzelonako XIX. mende bukaerako arkitektura irudimentsuaren adibide aberatsa. Leihoak, kupula, bitxiak bitxiontzi bihurtu dira




08.- Casa Terrades edo Casa de les Punxes. Puig i Cadafalch.- 'Punxes' puntak esan nahi du katalanez. Bere bi dorre puntazorrotzak eta adreiluak ematen dion efektuarekin Erdi Aroko gaztelu bat gogoratzen digu.



09.- Modernismoak herentzi klasizistari uko egin arren, sarri jotzen zuen gotikoara edo barrokorra, naturalismora bezalaxe.




10.- Begiratokia etxetik irten da kanpora begiratzera eta begiratua eta mirestua izatera




11.- Casa Lleo Morera. Doménech i Montaner.- Batlló eta Amatller etxeekin batera 'Liskarraren etxaldea', bartzelonar modernismoaren adibiderik biziena osatzen du, hiru arkitekto bikainenak sinadurapean.




12.- Bizitza bere lekuan kokatzeko saio bat da artea. Horregatik, arteak bakarrik salba gaitzake egunerokotasun zorrigaiztokoaren arriskuetatik




13.- Casa Mila (La Pedrera). Gaudi.- Nork landu ditu harri hauek Gaudiren agindueta-
ra? Harginek ala zerutik erauzitako haizeak, eguzgiak eta euriak?




14.- Casa Batlló. Gaudí.- "Zuzena gizonen marra da; kurba, berriz, Jainkoaren marra da". Gaudiren hitz hauek Casa Batlló edo La Pedreran taxutzen direla dirudi.



15.- Apainketa ez da aro deigarri honen bizia definitzen duena, baizik apainketa beregan daramaten gizakiak: gizakien arimak apaindura bihurtu dira.



16.- Espiritu sortzaile batentzat hiru gauza bakarrik daude: Hemen nago ni, hor natura eta han nik edertu behar dudana.



17.- Klasisismo eta Errenazimenduko estrukturei eraberrituz jarraitu arren, barrukal-dera aberastu zuen modernismoak bere egitura eta homidura.